

## **ZULO BAKOTXARI LARAKOA**

### ***Ereñoko Gabika auzoko Maripa Ispizuak kontatuta***

Baserritar amarrutsu bate aitortzera agertu zen behin.

- Ezer ostu duzu? –itaundu zion abadeak.
- Artegi baten ahari bat ostu gura izan nuen behin; baina, zuloa txikiegia zelako, bertan itxi behar izan nuen.
- Guraria asko da, egindako beste da eta ordea eman beharra duzu. Pezeta biko bat arimei, eskekoei, zeri edo hari eman behar izango diozu.
- Berorri ematea berdin ez ote da?
- Emango dizut nik behartsuei eta esadazu gure baduzu.

Baserritar hori emakumeak aitortzen diren aldera joan zen eta sareko hutsune artean dirua ezarrita,

- Hartu, jauna, hartu pezeta biko hau –esan zion.
- Baina nik ezin izan nion oratu.
- Berdin gertatu zitzaidan niri ere.

### **Resurrección María de Azkue**

Euskalerraren Jakintza

Literatura Popular del País Vasco

II. Liburua: Ipuinak eta Irakurgaiak

Euskaltzaindia&Espasa-Calpe

Bilbo, 1989